

## 2. zikloko Ingeniaritzako hainbat espezialitatetako 179 ikasleri diplomak eman dizkiete

2007/05/21

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak bihar, maiatzak 18, ostirala, 179 diploma emango dizkie Ingeniaritzako hainbat espezialitatetako titulua lortu duten 2005/2006 promozioiko ikasleei. Ekitaldi akademiko berean, Mondragon Unibertsitateko IV. promozioiko 5 doktorek ere diplomak jasoko dituzte.

Hauek dira ikasleen kopuruak, tituluka: Industria Antolaketako Ingeniaritzakoak 51, Industria Ingeniaritzakoak 56, Automatika eta Industria Elektronikako Ingeniaritzakoak 30, Informatika Ingeniaritzakoak 41 eta Telekomunikazioetako Ingeniaritzakoa 1.

Titulu akademikoak emateko ekitaldia bihar, ostirala, egingo da, 18:00etan, Arrasateko Amaia Antzokian. Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zuzendariak, Vicente Atxa Uribe, emango dio hasiera ekitaldiari, eta amaiera, berriz, Mondragon Unibertsitateko Errektore losu Zabalak. Diplomak banatzeko ekitaldi akademikoan zehar, MCCko Jasokuntza Dibisioko Teknologia Berrikuntzako zuzendariak, Iñaki Aranburu Agirrek, "Lehiakortasuna eta Berrikuntza" hitzaldia emango du.

### Azterketa, titulazioka

Horrela, bihar 179 ikaslek jasoko dute Ingeniaritza-titulua, horretarako ikasketak bukatu ondoren. Beste 5 ikaslek Mondragon Unibertsitateko Doktore titulua jasoko dute. Sexuari dagokionez, ikasleen % 23,59 emakumeak direla aipatu behar da.

Titulazio horiek lortzeko, ikasle guztiek urtebete inguru eman behar izan dute Karrera Amaierako Proiektua egiten, enpresa batekin elkarlanean. Aceralia Redondos S.A., Danona, S.COOP., Ecotecnia, Eroski, Lince S.A., Fagor Arrasate, S. COOP., Fagor Electrodomésticos, S. COOP., Pixel Sistemas S.L, eta Mondragón Sistemas de Información, S. COOP. izan dira enpresa horietako batzuk.

Bestalde, ikasleen % 99k titulazioa lortu eta hiru hilabete baino lehen lana lortzen dutela azpimarratu behar da.

